URDULIZKO UDALARI ERREFUSAREN ETA BIOHONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO ATZETIK KARGATZEKO EDUKIONTZIAK ETA SARBIDE ELEKTRONIKORAKO KONTROL SISTEMAK, HORIEN MANTENTZE LANAK ETA TXARTELEN ETA DATUEN KUDEAKETARAKO SOFTWAREA HORNITZEKO ESLEIPENA ARAUTZEKO BERARIAZKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN HELBURUA.
2. 1.200 litroko EDUKIONTZIAK
   2.1 ezaugarri teknikoak
   2.2 dimentsioak
   2.3 Adierazpen grafikoa
   2.4 Ziurtagiriak
3. SARBIDEA KONTROLATZEKO SISTEMA/SARRAILA ELEKTRONIKOA:
   3.1 Sarraila elektronikoa
      3.1.1.1 Itxiera elektronikoaren ezaugarriak
   3.2 Web plataformara sartzeko kontrol-sistema
   3.3 Edukiontzian instalatzea
   3.4 Sistema abian jartzea

4 TXARTELAK ETA TXARTELEN GRABATZAILEA:
5 SARBIDEA KONTROLATZEKO SISTEMAREN/SARRAILA ELEKTRONIKOAREN MANTENTZE LANA
   5.1 Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak
   5.2 Konponketen larrialdi-zerbitzua

6 HORNIDURA ENTREGATZEKO LEKUA ETA EPEA
7 HORNIDURAREN BERMEA
8 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

1. KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratu honen helburua da 170 errefusa-edukiontzi eta 1200 litroko 60 biohondakin-edukiontzi hornitzea. Gainera, errefusa eta organikoa gaika biltzeko edukiontzietan, sarbidea kontrolatzeko sistema instalatu, txertatu eta martxan jarriko da (sarraila elektronikoarekin) eta datuak kudeatzeko sistema izango du. Halaber, kontratuaren xedea izango da sarraila elektronikoak zabaltzeko gutxienez 6.000 txartel hornitzea, sarbidearen kontrol-sistemaren mantentze-lanak egitea (sarraila elektronikoak) eta kontratuak dirauen bitartean txartelak hornitzea.

Edukiontzien hornikuntzaren barruan sartzen da edukiontzien hornikuntza, garraioa, deskarga, muntaketa eta pleguan adierazitako lekuan entregatzea.

Hortaz, lehiaketa honen helburua da hornikuntza hauek kontratatzea:

- 1.200 litroko 170 edukiontzi errefusa biltzeko
- 60 edukiontzi biohondakinak (organikoa) biltzeko
- Sarbidearen kontrol-sistema: edukiontzi guztientzako sarraila elektronikoa.
- Datuen kudeaketarako softwarea
- Irekitzeko txartelak
- Sarraila elektronikoen mantentze-zerbitzua

2. 1.200 litroko EDUKIONTZIAK:

2.1 EZAUGARRI TEKNIKOAK

Bai organikoarentzako, bai errefusarentzako edukiontziak bereizgarriak izan beharko dira eta horretarako “marroia” eta “grisa” koloreak erabili beharko dira. Atzetik kargatzekoak izan behar dute eta ezaugarri hauek izango dituzte:

- Edukiontzi mota: Atzeko karga
- Bolumena: 1.200 litro
- Kolorea:
    - *Gai organikoetarako 60 edukiontzi:* Ontzia bera, gris iluna (RAL 7037) edo antzekoa; eta estalki marroia

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- *Errefusarako 170 edukiontzi:* Ontzia bera, gris iluna (RAL 7037) edo antzekoa; eta estalki grisa

- Materiala: Dentsitate handiko polietilenoa.
- Injekzio-estalkia eta inguruko gerrikoa
- Errotomoldeaketa bidez fabrikatua
- Eraikuntza sendoa.
- Elementu metaliko guztiak (torlojuen piezak, buloiak, burdineriak, eta abar) altzairu herdoilezinekoak edo beroan galvanizatutakoak izango dira, korrosioari erresistenteak izan daitezen.
- Eragintzako mekanismoek ez dute kontakturik izango hondakinekin eta lixibiatuekin eta kanpoaldetik irisgarriak izango dira.
- Edukiontziek forma borobildua edukiko dute, apurtuz gero deformazioak babestu ahal izateko.
- Estetikoki, ahalik eta ikusizko inpakturik txikiena izango du edukiontziak.
- Erabiltzailearen aldean, erraz erabiltzeko estalki bat izango du erdian eta, horretarako, motelgailuak izango ditu, ireki eta ixteko ekintza leuna izan dadin eta erabiltzean istripurik egon ez dadin.
- Edukiontzia deskargatzeko estalkiak horma bikoitza izango du, erresistentzia handiagoa izan dezan.
- Garbiketa-lanak ahalbidetzeko, edukiontziak azalera laua izan beharko du, errefortzurako nerbiorik gabea, baldintza higienikoak ezin hobeak izan daitezen.
- Edukiontzia bilketa-kamioian husteko unean edo edukiontziak garbitzeko kamioian garbitzeko unean, biratze hutsarekin, estalkiak blokeatzeko sistema automatikoki desblokeatu eta estalkiak askatu beharko ditu, edukiontzia erabat ireki eta hustu dadin.
- Edukiontziaren ontziak edo upelak pieza bakarrekoa izan beharko du, hermetikotasuna eta erresistentzia handiagoa bermatzeko.
- Edukiontziak bateragarriak izan beharko dira erabat bilketa-zerbitzuak dituen biltzaileekin.

2.2 DIMENTSIOAK:

- Gehienezko zabalera: 1.370 mm
- Gehienezko sakonera: 1.060 mm
- Gehieneko altuera: 1.385 mm Erabiltzaileen irisgarritasuna sustatzeko eta oinezkoen ikuspena hobetzeko.

2.3 ADIERAZPEN GRAFIKOA:

Enpresa esleipendunak entregatzen dituen edukiontzi guztiek honako adierazpen grafikoa izango dute:

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Bota beharreko hondakinak identifikatzearen helburua da erabiltzaileek edukiontziak ondo erabiltzea eta zuzen eta modu ikusgarrian adierazi behar da. Identifikazio hori serigrafiarekin, plaka batekin edo pegatina baten bidez egin daiteke. Errefusaren edukiontzien kasuan, “RESTO - ERREFUSA” mezua izan beharko du gutxienez. Organikoaren edukiontzien kasuan, “ORGANIKOA” mezua. Edukiontzi guztietan idatzita agertzen dena elebitan jarriko da.
- Gainera, adierazpen grafiko gehigarria izango dute udalaren logoarekin eta aldundiaren logoarekin, udalak hala eskatuz gero.
- Plaka edo banda islatzaileak muturretan, edukiontziaren lau angeluetan, ahal bada katadioptrikoen bidez, gauean hobeto identifikatu ahal izateko.
- “Ez aparkatu” adierazten duen kartela edo itsasgarria galtzadaren aldean eta ibilgailu bat kentzen ari den garabiaren piktograma.
- Edukiontzia ikusteko desgaitasuna duten erabiltzaileentzat egokitzeko, piktogramak erliebea izango du eta braillez idatzita egongo da, ikusteko desgaitasuna duten erabiltzaileentzat.

2.4 ZIURTAGIRIAK

- Europako UNE-EN-840-2 / 5/6 araudiaren arabera homologatutako eta ziurtatutako edukiontzia eta CE marka duena.
- Edukiontziak zaratari buruzko 2000 / 14/CE araudiaren baldintza orokorrak bete beharko ditu.
- Kanpoko erakunde batek igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko da, UNE 840 araudia betez, edukiontziaren kalitatea bermatzeko eta egungo eta etorkizuneko bilketa-ibilgailuekin bateraezintasunak sor ez daitezen.
- Edukiontzi irisgarri bat eskatuz gero, enpresa esleipendunak irisgarritasun-ziurtagiria aurkeztu beharko du UNE EN 170001 arauaren arabera. Enpresak hornitzeko eta kokatzeko betebeharra izango du, beharrezkoa izanez gero. Horretarako, irisgarritasunaren eta diseinu irisgarriaren irizpideen arloan indarrean dagoen legedia bete beharko du; *irisgarritasun orokorreko UNE EN 170001-1 araua.*

3. SARBIDEA KONTROLATZEKO SISTEMA/SARRAILA ELEKTRONIKOA:

3.1 SARRAILA ELEKTRONIKOA

Instalatutako edukiontziek RFID identifikazio-txartelaren bidez irekitzeko/ixteko sistema elektronikoa izango dute. Sistema horren helburua da hondakinen edukiontziaren sarbideak kontrolatzea, balekoa den RFID txartela duten erabiltzaileek soilik irekitzeko eta botatzeko hondakinak edukiontzi horietan.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Sarraila elektronikoak errefusa eta organikorako edukiontzi guztietan instalatuko dira, betiere «*Urdulizko udal-hondakinak bildu, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua»* lizitatzeko plegu teknikoaren 3.4 atalean deskribatutako instalazio-egutegiaren arabera.

Sarraila elektronikoaren sistemaren osagarriak edukiontziaren barrualdean eta kanpoaldean jarriko dira, eta behar bezala dimentsionatuta eta babestuta egon beharko dute, lixibiatuen, euriaren, garbiketen eta erabilera arruntaren ondorioz sor daitezkeen kalteak ekiditeko.

Sarraila elektronikoak instalatzeko, martxan jartzeko eta kudeatzeko beharrezko elementu guztiak esleipendunaren kontu izango dira.

Baterien iraupena bi urte edo gehiagokoa izan beharko da.

Laburbilduz, esan behar da edukiontziak eta identifikazio/itxiera/plataformaren sistemak honako baldintza hauek bete behar dituela:

Herritarrentzat:

- Erabilera intuitiboa
- Estetika integratua
- Egoerari buruzko informazioa

Udalarentzat:

- Sistema segurtasuna eta fidagarritasuna
- Fabrikatzaile erantzule bakarra
- Komunikazio autonomoa
- Iraupen luzeko bateria
- Kostu eraginkorra
- Mantentze-lan gutxi
- Kudeaketa-plataforma erraz eta intuitiboa
- Beste plataforma batzuekin integratzea

3.1.1 Itxiera elektronikoaren ezaugarriak

- Sistema irekitzeko, txartelak baliozkoa izan beharko du, eta itxita jarraituko du baliozkoa ez bada edo blokeatu bada. Kasu horietan, soinua entzun eta argia piztu beharko da.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Sistemak, gutxienez, honako hauek izango ditu:
    - Txartel-irakurgailua
    - Argizko LEDak
    - Soinu-ohartarazpena
    - Itxiera eta erabiltzaile-kudeaketa kontrolatzeko adimena
    - Bateria
    - Datuak transmititzea, SIM integratudun txartel bidez
    - Altzairu herdoilgaitzezko piezak, sistema edukiontzian ainguratzeko
    - Sistema edukiontzian integratu eta egokitzeko elementu espezifikoak
    - Multzo osoa edukiontzian instalatzea

- Multzoak, gutxienez, lau elementu independente izango ditu, mantentze-lanak errazago egin ahal izateko. Hona hemen elementuok: led eta soinu-igorledun txartelen irakurgailua, sarraila, elektronikoa eta bateria. Pieza horietako bakoitzak bilgarri plastikoa izango du. Bilgarriak berariaz fabrikatuta egongo dira eskaintzen den sistemarako, edukiontziarekin hobeto integratzeko eta bandalismo-aukera txikiagoa izateko, eta ez da onartuko plastikozko eta metalezko kutxa komertzialik. Kutxen arteko konexioa konektore estankoekin egingo da.

- Multzo osoa edukiontziaren erabiltzaile-estalkian jarriko da, eta, kanpotik, LEDdun irakurgailua baino ez da ikusiko, hori baita erabiltzailearekin elkarreragiten duen zatia. Erabat integratuta, babestuta eta kanpotik ikusteko moduko torlojurik gabe egongo da.

- Sarrailak bakarra izan beharko du, erabiltzailearentzako sarbidearen erdigunean kokatuta.

- Sarrailak katigamendukoa izan behar du, automozio-motakoa. Karkasa bat izan behar du, erdian inbutu itxurako ahokadura bat duena, eta horrek katigatze-punturantz gidatu behar du uztaia. Edukiontzia itxita dagoela detektatzeko barne-sistema izango du, eta horrek antzemango du estalkia irekita edo itxita dagoen. Ez da onartuko kisketa motako itxiera-sistemarik.

- Sarrailak ez du energiarik kontsumituko irekita edo itxita egoteagatik; kontsumoa posizioa aldatzean baino ez da gertatuko. Kudeatzaileak hala eskatzen badu, sarrailak irekita egon ahal izango du etengabe, bateriarik kontsumitu gabe.

- Instalazioa errazagoa izan dadin eta edukiontziak kalean duen kokapenaren mendekotasunak saihesteko, ez da onartuko bateriari eguzki-energia ematen dion sistemarik.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Sistemak hondakina sartzeko estalkia edo estalkitxoa bere kabuz ixtea lortu beharko du, erabiltzaileak bultzatu edo presionatu behar izan gabe.

- Estalkiaren, krokaduraren edo sarrailaren gaineko ezein ahaleginik ez da zuzenean transmitituko sarrailaren motor elektrikora, eta, horregatik, sarrailaren diseinuak horixe hartu beharko du kontuan.

- Uztaia sarrailan katigatzeko indarra ahalik eta txikiena izateko moduan diseinatu beharko da sarraila, eta, horrela, bermatuko da, batetik, estalkia leunki jaitsiko dela, eta ez dela irekita geratuko itxituran apur bat bermatuta dagoelako.

- Bateria litiozkoa izango da –iraupen luzekoa–, gutxienez 250 watioordukoa (anperioordu * tentsioa), eta, erabilera-baldintza normaletan, gutxienez, urtebeteko iraupena izango du. Bateria aldatzeko sistema azkarra izango du, eta ez du horretarako langile espezializatuen beharrik izango. Bateria osagai elektronikoak dauden lekutik bereizita egongo da, bateria aldatzeko eragiketan osagai elektronikoak inoiz kaltetu ez daitezen.

- Bateria deskargatu aurretik, sistema desaktibatu eta estalkia ireki egingo da, edukiontzia erabili ahal izateko. Horrelako egoeretan, bateria baxuaren alerta emango da.

- RFID txartelak identifikatzaile bakarrekoak izango dira, udalak eskatutako logotipoarekin eta informazioarekin inprimatuta.

- Datuen transmisioa horniduraren barruan egongo da kontratuak irauten duen bitartean, Udalak jasotzen duenetik. Horretarako, operadore mugikorraren NBIoT - 2G teknologia erabiliko da, eta sare-estaldura bidezko komunikazio egokia ziurtatuko du, berariazko instalazioen beharrik gabe.

- Edukiontziaren adimenak pasahitza eta UID pribatua erabiliz jardun beharko du, eta erabiltzaile bakoitzak zenbaki bakarreko txartela izango du.

- Sistemak, NB-IoT teknologiaren bidez, modu autonomoan erregistratu, kudeatu eta jakinarazi beharko dizkio software-plataformari gutxienez datu edo gertaera hauek:

    - Edukiontzia irekitzeko erabili den txartelaren UID pribatua.

    - Zein egunetan eta zein ordutan erabili den.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- GPS posizioa.
- Bateria baxuaren alerta
- Irekita/ itxita dagoen
- Ixteko motorraren akatsa

- Komunikazioa gutxienez egunean behin egingo da.

3.2 WEB PLATAFORMARA SARTZEKO KONTROL-SISTEMA

Itxiera elektronikoarekin batera, web-plataforma bat entregatuko da, txartelak eta sistemak jasotako datuak kudeatzeko.

Kudeaketa-softwarea eguneko 24 orduz, urteko 365 egunetan, egongo da martxan, eta horri esker, Udalak hala eskatzen badu, erabiltzaile/etxebizitza bakoitzak edukiontzietan egindako irekitzeen eta erabileren datuak, txostenak eta bestelako datuak atera ahal izango dira. Software horrek aukera eman behar du sarrailak urrunetik kudeatzeko: sartzeko eta programatzeko aukera eman behar du, datuak irauli ahal izateko (zenbat aldiz ireki den, erabiltzaileen identifikazioa, etab.), edukiontzien zerrenda eta haien geolokalizazioa plano batean, baterien kargaren mailaren kontrola, edukiontziak ixteko edo irekitzeko aginduen kudeaketa orduka edo egunka, Udalak zehaztutako txostenak egitea, eta abar.

Beraz, itxiera elektronikoarekin batera, web plataforma baterako sarbidea ere emango da, sistemak bildutako datuak kudeatzeko. Plataforma horretara sartzeko aukera izango dute bai Udalak, bai errefusa eta biohondakinak biltzeko zerbitzuaren enpresa esleipendunak. Gainera, web-plataformaren bidez kudeatu ahal izango dira erabiltzaileen txartelak (altak, bajak eta abar).

Plataforma horrek aukera emango du:

- Hainbat profileko udal-erabiltzaileak sortzeko, esaterako, administraziokoa, kudeaketakoa, mantentze-lanetakoa, kontsultarakoa...
- Edukiontziarekin komunikatzeko
- Txartelak kudeatzeko, blokeatzeko, ordutegien bidezko sarbideak ezartzeko, historikoak lortzeko, txartel berriei alta emateko, etab.
- Edukiontzien mapan ikusteko (geoerreferentziekin) eta haien egoeraren berri izateko.
- Abisuak eta gorabeherak kudeatzeko (esaterako, bateria baxua, egoera txarrean dauden sarrailak, iraulitako edukiontziak, eta abar).
- Estatistikak eta erabilera-historikoak bistaratzeko

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Plataformak aukera emango du datu horiek guztiak hainbat formatutan esportatzeko –bai eta API bidez ere– Udalak erabiltzen duen beste kudeaketa-plataforma batera.

Plataformak, edukiontzi bakoitzean instalatutako sistemarekin batera, ekipoen firmwarea urrutitik eguneratzeko aukera izan behar du, edukiontzira fisikoki joan beharrik gabe.

Konexio-zerbitzu guztiak eta instalatutako sarraila elektroniko guztiek behar bezala funtzionatzeko beharrezko lizentzia guztiak barne egongo dira, eta udalak softwarea erabiltzeko aukera izango du erabiltzaileen eta ordutegien mugarik gabe.

Sartzeko kontrol-sistema ere irisgarria izango da smartphonerako aplikazio bidez. Hala, erabiltzaileek edukiontziak ireki ahal izango dituzte mugikorrari esker, txartelik erabili beharrik gabe. Erabiltzaile batek bere terminalarekin APPn alta ematean, sarbide hori “etxebizitzaren helbideari” edo Udalak ematen duen datuari lotutako txartel gisa agertuko da aplikazioan, eta “birtuala” dela adieraziko du. Hala, aukera izango du sarrailak txartel fisikoarekin zein smartphonearekin erabiltzeko.

Esleipendunak udal-langileak edo udalak adierazitako langileak formatuko ditu, honetarako:

- Lortutako datuak kontrolatzeko eta kudeatzeko
- Txartelak grabatzeko eta pertsonalizatzeko
- Konponketa-lan errazak egiteko

Datuak kudeatzeko softwarearen erabilera-eskubideen esleipenaren epeari eta sarraila elektronikoen mantentze-lanei dagokienez, 4 urteko iraupena izango du, lehen aipatutako materialak hornitzen direnetik kontatzen hasita, hau da, edukiontziak, sarraila elektronikoak eta hornitu beharreko gainerako materialak jasotzeko aktatik zenbatzen hasita.

3.3 EDUKIONTZIAN INSTALATZEA

Enpresa esleipendunak hornitutako edukiontziaren gainean guztiz instalatuta entregatuko da sistema.

Instalazioak beharrezko euskarriak eta egokitzapenak izango ditu; itxiera-sistemen fabrikatzailearen erantzukizuna izango da bi produktuen arteko egokitzapena, akatsik gabe funtziona dezan, baita edukiontziko piezak sendotu edo aldatu behar direnean ere. Ez da onartuko integrazio on-onik eta euskarri-edukiontziaren ezaugarrietara egokitutako funtzionamendurik ez duen konponbiderik.

Instalazioa udal-instalazioetan egin ahal izango da, Udalak aurretik baimentzen badu.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Edukiontzien eta sarrailen deskarga eta muntaketa eta txartelen garraioa kontratistak egingo ditu eta udaleko langileek eta bitartekoek ez dute inolako esku-hartzerik izango. Halaber, aurretik adierazitako entrega-epearen barruan sartu beharko dira.

Hornitutako ondasunen garraioaren, entregaren eta muntaketaren gastuak kontratistak ordainduko ditu.

Edukiontziak deskargatu eta muntatu ondoren, kontratistak zegoen bezala utzi beharko du entrega-lekua eta bilgarrien hondakin guztiak eta sor daitezkeen gainerako hondakinak jaso beharko ditu, eremua garbi utziz.

3.4. SISTEMA ABIAN JARTZEA

Udalarentzat konfiguratutako plataforma osoa entregatuko da, edukiontziaren ezaugarriak dituzten ekipo integratu eta parametrizatuekin, bai edukiontzi motari dagokionez, bai bilketa motari, hondakinari eta sartzeko konfigurazioari dagokienez (estalkian/estalkitxoan/danborrean, etab.).

Gutxienez, prestakuntza-jardunaldi bat eskaini beharko zaie udal-langileei.

4. TXARTELAK ETA TXARTELEN GRABATZAILEA:

Hasiera batean, edukiontziak elektronikoki irekitzeko 6.000 txartel gutxienez, Urdulizko Udalarentzat espezifikoki pertsonalizatuta, adierazten zaion grabazio-sektorean.

Txartelek irizpide hauek bete behar dituzte:

- Txartel indibidualak izatea.
- Etxebizitzaren edo Udalak ematen duen datuaren araberako identifikazioa, dagokion zenbakiarekin eta QR kodearekin (aplikazioa deskargatzeko eta erabiltzailea sisteman lotzeko balioko du).
- Diseinuak Urdulizko Udalaren logoa izan beharko du. Koherentea izan beharko da udalak egindako birziklapen-kanpainen irudiarekin. Amaierako diseinua kontratuaren arduradunarekin adostuko da.

Udalak udalerriko etxebizitzen helbideen datuak emango ditu udal-erroldaren edo Udalak ematen duen datuaren arabera, esleipendunak txartel bakoitza pertsonalizatu ahal izateko eta etxebizitza edo emandako datu bakoitzarekin lotzeko, txartelen hasierako grabatze masiboan.

Gainera, txartelen irakurgailu eta grabatzaile bat hornituko da txartelak irakurri ahal izateko eta txartel berriak igorri ahal izateko galduz gero, alta berriak egonez gero eta abar.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Urtero, enpresa esleipendunak gehienez 200 erabiltzaile-txartel emango ditu alta berrietarako, galera edo lapurretetarako, txartel-hausturetarako, etab.

Ematen EZ diren txartelak EZ dira ordainduko.

5. SARBIDEA KONTROLATZEKO SISTEMAREN/SARRAILA ELEKTRONIKOAREN MANTENTZE LANA

Edukiontziak ixteko sistemaren prebentziorako eta zuzenketarako mantentze-lana barne egongo da.

Horretarako, behar bezala funtzionatzeko ixteko sisteman egin beharreko esku-hartze guztietan eskulana eta zerbitzua eskuragarri jarri beharko dira. Halaber, ixteko sistemaren osagarri guztiak ordezkatu, aurreikusi eta biltegiratu beharko dira.

Bermearen kanpoko erantzunak alde batera geratuko dira eta aparte fakturatuko dira.

Edukiontzien urteko stocka hasierako edukiontzi-parkea baino % 10 handiagoa izan daitekeenez, enpresa esleipendunak kontuan izan beharko du kopuru hori handitu ahal izango dela sarbidea/sarraila elektronikoak kontrolatzeko sistemaren mantentze-lanak direla-eta, eta kostu hori urteko aurrekontuan islatuta dagoela. Horregatik, enpresa esleipendunak edukiontzietan instalatutako sarraila elektroniko guztiak mantendu beharko ditu.

Mantentze-lanak 4 urtez egingo dira, lehen aipatutako materialak hornitzen direnetik kontatzen hasita, hau da, edukiontzien, sarraila elektronikoen eta hornitu beharreko gainerako materialen jasotze-aktatik.

Egiten EZ diren mantentze-lanak eta/edo larrialdi-zerbitzuak ez dira ordainduko, eta, horregatik, enpresak mantentze-lan eta/edo zerbitzu horiek egin izanaren frogagiria emango du.

5.1 MANTENTZE-LAN PREBENTIBO ETA ZUZENTZAILEAK

Mantentze-lanaren barruan hauek sartzen dira:

- Alerta-sistema egunero egiaztatzea.
- Instalatutako edukiontzi guztien ixteko sistemak sei hilean behin berrikustea (2 egun urtean), plangintzaren arabera edo konponketaren bat egiten denean. Gutxienez operazio hauek egingo dira:
    - Elementuen egiaztapen funtzionala eta garbiketa
    - Bateriaren karga-mailaren egiaztapena.
    - Estalkiaren blokeoaren eta desblokeoaren egiaztapena.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Itxieren egiaztapena eta doikuntzak egitea.
- Kableen egiaztapena eta oxidazioaren/sulfatazioaren hautemate goiztiarra.
- Edukiontziaren geo-kokapenaren egiaztapena

5.2 KONPONKETEN LARRIALDI-ZERBITZUA

Alerta-sistemak hautemandako edo erabiltzaileak jakinarazitako arazoak berehala konpondu behar dira, 2 laneguneko epean. Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileentzako aurreikusitako egunetatik kanpo egingo dira. Gehienez ere urtean 6 egunetan egingo da.

Egiten EZ diren mantentze-lanak eta/edo larrialdi-zerbitzuak ez dira ordainduko, eta, horregatik, enpresak mantentze-lan eta/edo zerbitzu horiek egin izanaren frogagiria emango du.

6. HORNIDURA ENTREGATZEKO LEKUA ETA EPEA

Hornikuntza guztiak Urdulizko Udalak adierazitako moduan eta instalazioetan entregatu beharko dira.

Oro har, enpresa esleipendunak hartuko du hornitu beharreko ondasunari dagozkion arau aplikagarriak zein bermeei, homologazioei, ziurtagiriei edo plegu honen bidez esleitu beharreko edukiontzien erabilerarentzako beste edozein xedapen edo baldintzari dagozkien arauak betetzeko ardura.

Kontratistak erabat muntatuta eta berrikusita entregatuko ditu edukiontziak eta sarrailak, kontratua formalizatu eta 70 egun naturaleko gehieneko epean. Era berean, gainerako materiala kontratua sinatzen denetik gehienez hilabeteko epean entregatuko da (txartelak, irakurgailua eta abar).

Edukiontzien eta sarrailen deskarga eta muntaketa eta txartelen garraioa kontratistak egingo ditu eta udaleko langileek eta bitartekoek ez dute inolako esku-hartzerik izango. Halaber, aurretik adierazitako entrega-epearen barruan sartu beharko dira.

Hornitutako ondasunen garraioaren, entregaren eta muntaketaren gastuak kontratistak ordainduko ditu.

Edukiontziak deskargatu eta muntatu ondoren, kontratistak zegoen bezala utzi beharko du entrega-lekua eta bilgarrien hondakin guztiak eta sor daitezkeen gainerako hondakinak jaso beharko ditu, eremua garbi utziz.

Datuak kudeatzeko softwarea erabiltzeko eskubidea lagatzeko epeari dagokionez, baita sarraila elektronikoen mantentzeari dagokionez ere, 4. urteko iraupena izango du, lehen aipatutako materialen horniduratik kontatzen hasita.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

7. HORNIDURAREN BERMEA

Hornitu beharreko edukiontzi bakoitzak gutxienez 3 urteko bermea izatea eskatzen da eta ezinbesteko baldintza da. Berme hori alde guztientzat eta edukiontzia osatzen duten pieza guztientzat izango da, baita sarraila elektronikoaren sistemarentzat ere.

Berme-aldia Urdulizko Udalak hornidurak jasotzeko akta egiten duen egunetik aurrera jarriko da indarrean.

8. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

- Enpresak haren plantillako pertsona bat izendatuko du kontratu honen xede diren zerbitzuen buru eta arduradun gisa. Enpresak jarritako langile guztiak haren mende egongo dira hierarkikoki, eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzko arauak bete beharko ditu, haren mendeko langileei betearazteaz gain.

- Halaber, Udalari helarazi beharreko komunikazio guztiak buru edo arduradun horren bidez jakinaraziko dira, eta horren bidez ezagutaraziko zaizkio Udalari zerbitzua ematean sortzen diren arazo teknikoak, laboralak, segurtasun-arazoak edo beste nolabaiteko arazoak, baldin eta enpresak hartutako konpromisoari edo langileei eragiten badiete, edo Udalaren, beste erakunde edo agintari ofizial batzuen edo Laneko Ikuskaritzaren jarraibideen ondorioz gertatzen badira. Beraz, pertsona horren bidez saiatu behar da arazoak konpontzen, eta ez beste inola.

- Enpresari emandako zehaztapen teknikoen eta/edo aginduen arabera edo enpresak berak prestatu eta Udaleko arduradunek onartutako zehaztapenen arabera gauzatu behar dira kontratuaren xede diren lanak.

- Zerbitzua modu egokian emateko behar besteko bitarteko teknikoak izan beharko ditu kontratistak.

- Langileek beharrezko materiala eta jantzi aproposak izan beharko dituzte uneoro, zerbitzuaren kontratistaren kontura.

- Lizitazio honetan, ez da egokia lotetan banatzea, kontratuaren xedea baita edukiontzi eta sarraila elektronikoen fabrikazioa eta hornidura kontratatzea eta horien mantentze-lanak egitea. Batetik, garrantzitsua da edukiontzi eta sarrailen fabrikatzailea bera izatea bietarako, hirugarrenek edukiontziak manipula ez ditzaten. Bestetik, garrantzitsua da elementu bien fabrikatzailea aldi berean mantentzailea izatea; izan ere, horrela ez balitz, zailtasun bat izango litzateke kontratua gauzatzeko, eta ez litzateke eraginkorra izango. Kontratu berean sarrailen mantentze-lanak ere sartzeak aukera ematen du gorabeherak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko. Hornitzailea ez den beste baten esku uzten badira mantentze-lanak, erantzukizun-gatazka sor liteke matxurak direnean, eta horrek atzeratuko luke arazoak konpontzea. Erantzukizun guztiak kontratista bakarrari emanez, arreta integral eta bizkorra egiteko atea irekitzen da.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40


• Kontratua formalizatu aurretik, enpresa esleipendunak "Datuak babesteko eraginaren ebaluazioa" aurkeztu beharko du. Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 35. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, Datuen Babesari buruzko Eraginaren Ebaluazioa aurkeztu beharko du. Ebaluazio horrek honako hauek jasoko ditu gutxienez:

1. Aurreikusitako tratamendu-eragiketen eta tratamenduaren helburuen deskribapen sistematikoa, eta, hala dagokionean, tratamenduaren erantzuleak lortu nahi duen interes legitimoa.
2. Tratamendu-eragiketen premiaren eta proportzionaltasunaren ebaluazioa, helburuarekiko.
3. DBEOren 35. artikuluaren 1. paragrafoan aipatzen diren interesdunen eskubide eta askatasunetarako arriskuen ebaluazioa.
4. Arriskuei aurre egiteko aurreikusitako neurriak, bermeak, segurtasun-neurriak eta datu pertsonalen babesa bermatzeko mekanismoak barne, eta DBEOrekiko adostasuna frogatzeko, interesdunen eta ukitutako beste pertsona batzuen eskubide eta interes legitimoak kontuan hartuta.
5. EIPDk frogatu beharko du datu pertsonalen tratamenduak erabat betetzen dituela DBEOn ezarritako printzipioak eta betebeharrak, bereziki honako hauei dagokienez:

- Tratamenduari buruzko printzipioak, 5. artikuluan ezarritakoak.
- Tratamenduaren legezkotasuna, 6. artikuluaren arabera
- Arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak, 32. artikuluaren arabera.

EIPD ezarritako epean ez aurkeztea, edo datuak babesteko araudia behar bezala betetzen ez dela bermatzen duen ebaluazio bat ez aurkeztea, lizitazio-prozeduratik kanpo uzteko arrazoia izango da.

Urdulizko alkatea



Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko
Ingurumen-teknikaria

NAIARA GAYA BAJO - 16071937C

Firmado digitalmente por NAIARA GAYA BAJO - 16071937C
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE URIBE KOSTA ZERBITZU MANKOMUNITATEA, ou=CERTIFICADO ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO, title=TECNICA DE MEDIO AMBIENTE, cn=NAIARA GAYA BAJO - 16071937C, givenName=NAIARA, sn=GAYA BAJO, serialNumber=IDCES-16071937C
Fecha: 2024.12.04 14:42:09 +01'00'

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40